146.zk.
2015eko martxoa

ARTZAPE

GETARIARRON TOPAGUNEA

GARAI BATEKO EUSKAL EZKONTZA

2001etik

146. ZK. 2015EKO MARTXOA

[Argitaratzailea] Artzape Euskara Elkartea

[Egoitza] Krixketaneko Iturrigaina 1
Euskaltxeta eraikina
[Telefonoa] 943 000 548
[Helbide elektronikoa] artzape@topagunea.com
[Erredakzioa] Izaskun Urbieta eta Monika Uzkiza.
[Lan taldea] Alain Inza, Aritz Iribar, Eider Iribar, Izaro Uzin, Jon Ander de la Hoz, Josune Urresti, Nerea Kamio eta Unai Mateos.
[Kolaboratzaileak] Aitor Irigoien, Amaia Irazabal, Ane Azkue, Andres Alberdi, Beñat Gereka, Cesar Blanco, Edurne Irigoien, Elan Euskadi GKE, Ereiten Kultur Zerbitzuak, Gaglo Gaztelekua, Habaneratik Alamedara Bertso Eskola, Iturzaeta Herri Eskola, Iñaki Requejo, Joxi Erauskin, Kepa Iribar, Katukale Irakurle Taldea, Markos Aizpuru, Mikel Mugika, Xabi Insausti, Urritza Aisialdi Taldea eta Uxoa Irigoien
[Diseinua] Monika Uzkiza
[Publizitatea]
artzape@topagunea.com / 943 000 548
[Inprimaketa] Gertu Koop.E. (Oñati)
[Tirada] 365 ale
[Lege gordailua] SS-504/01
[ISSN] 1578-469X
Oharra: ARTZAPE ALDIZKARIAk ez ditu bere gain hartzen aldizkarian argitaratzen diren iritziak.

GETARIAKO UDALAK, FORU ALDUNDIAk
eta EUSKO JAURLARITZAk
diruz lagundutako aldizkaria

AURKIBIDEA

3 ■ Elan Euskadi
4 ■ Zuen Txokoa
5 ■ Txapakalezka
6 ■ Elkarrizketa
7 ■ Argazki txokoa
8-9 ■ Klik batean
10 ■ Bi hitzetan ■ Denborapasen soluzioak
11 ■ Historiaren Katebegiak
12-15 ■ Argazki Erreportajea
16 ■ Harritarten Txutxupeka
17 ■ Gaglo Gaztelekua
18 ■ Komikia
19 ■ Toponimia ■ Txikiegia Agian
20 ■ Iritzia
21 ■ Petriletik Ikusmiran ■ Denborapasak ■ Getariako Hitzak
22 ■ Agenda
23 ■ Herriko Gutixiak ■ Interesgarriak

8-9 ■ KLIK BATEAN

7 ■ KORRIKA

12-15 ■ EUSKAL EZKONTZA

ARTZAPE ALDIZKARIA

943 000 548

artzape@topagunea.com

Artzape aldizkaria

Txeruko postontzian

Urtean 22€ - Getariatik kanpora bidaltzea 27€

elan euskadi
ONGD - GGKE

Turismorako plan estrategikoa: Getaria eta Getaria-Getarriarrentzako errespetu falta

GGKE batek, printzipioz, ez luke alderdi politikoen jarduera baloratu beharko, ez litzatekeelako justua izango, eta gainera badakigulako Getariako alderdi guztiek beti, herritarren ongizatea lortzeko egiten dutela lan.

Hala ere, Udalak bultzatutako proiektuek ekarriko lituzketen ondorioez zerbait esan beharra dago; hain zuzen proiektuak, berez (Turismorako Plan Estrategikoa kasu honetan) ez du ematen planik eredugarriena.

Hasi baino lehen, esan behar da TPEa xantaia baten fruitua dela. Horrela izanik, datozen urteetan Getaria eta getarriarren bizitza alda dezakeen plana abian jartzea ez dirudi modurik onena denik. Horregatik bakarrik, TPEa bertan behera utzi behar da. Turismoari dagokionez, hausnarketa batzuk egin behar dira.

Lehendabizi, Getariako herriak turisten kopurua handitzeko beharra du?

Krisiari aurre egiteko TPEa al da alternatiba bakarra?

Munduari begira, geure buruei galde diezaiekegu zergatik herrialde turistiko asko azpigaratuak diren. Badu Espaniar estatuak egitura ekonomiko orekaturik? Turismoari dagokionez, ezaugarri batzuk kontutan hartu behar dira:

-Turismoak esparru publikoak merkantilizatzen ditu.

-Turismoak inbertsiok sozializatzen ditu eta mozkinak pribatizatzen ditu; Edo beste era batera esanda: inbertsio publiko handia behar da baina etekina ez da hain nabarmena, esku pribatuetan geratuz.

-Espekulazio prozesuei ateak irekitzen dizkio, etxebizitza eta aisiaren kulturaren arloan bereziki. Horrela izanik, bertakoak dira gehien pairatzen dutenak eta denborak aurrera egin ahala joatera behartuta sentitzen dira.

-Industria turistikoak sortzen dituen lanpostu gehienak ez dira batere egonkorrak.

-Turismoak egitura urbanistikoa zein soziala lardaskatzen ditu elkar bizitza konpartitzeko diren esparruak "parke tematiko" bihurtuz. Bertakoak poliki-poliki arrotz bilakatuz.

Gainera,Elkanoren figura erabiltzeak halako plana sustatzeko ez dirudi oso sinesgarria; Zer egin nahi dugu? Beste "Quinto Centenario" bat baina askoz luzeago? Zer egingo dugu Espaniako "Juan Sebastián Elcano" itsasontzi eskola Getariara iristen denean? Berriro, transtornu bipolar kalkulatua erabiliko da non, bisitaren kontra euskalduntasuna goraipatzen den baina gero soineko politena aukeratzen ongietorrira joateko?

Kontuz amets handiekin. Getarian badaukagu adibide argi bat, hain zuzen ere egindako museo kolosalarekin, herriak behar zuenari bizkar emanez eta elite batean bakarrik pentsatuz.

Ildo horretatik jarraitzen badugu, alderdi politiko batek ere ezin izango ditu TPEaren ondoriak kudeatu.

Denak ez du balio etekinak ateratzeko, batez ere identitatea mutatzen badigute, honek guztiak ere zer ikusirik baitu identitatearekin.

Badaude alternatibak eta gugandik nahiko gertu. Zerain herriak adibidez, erantzun integrala eman zuen meatzaritza eta artzantzaren memoria berreskuratuz. Interpretazio zentroak giltzarriak izan dira garapena eta jasangarritasuna lortzeko. Beste erantzun integrala Orendainen aurkitzen dugu, non "Ondasun Komunaren Ekonomia" eta erabaki demokratikoak ez dira teoriak, praktikak baizik.

Biztanleentzako esparru kulturalak sortzeak ere, oso alternatiba pizgarriak suposatuko lituzke. Azpeitian, Sanagustin Kulturgunea apartako ispilua da jakiteko zer egin dezakegun. Getarian aldiz, gibeleko mina ematen du antzinako Kofradia zein egoeratan dagoen ikusteak. Eraiki hori, historiaz beteta dago, hori dela eta, oso aukera ona izan daiteke interpretazio zentroa sortzea, non, arrantzaleen eta nekazarien munduak beren lekua izango luketen.

Alderdi politikoak ezin dira interes pribatuen transmisiouhalak izan eta ezin dute ordezkatu herritarren ideiak eta nahiak korrika egindako hauteskundetarako programarekin. Ez dago presarik eta alderdi politiko guztiak ondo pentsatu behar dute Getariako biztanleei hitza emanez eta eztabaida zabalduz.

POLITENA
GURE BEREZITASUNAK:
• Aste egunean:
Eguneko Menua
• Jai egun eta Asteburuetan:
Luxuxko Pintxoak,
Bokatak eta Razioak.
• Eramateko eskaerak:
• Wi-Fi zerbitzua.
GETARIA
Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

aranola
PVC eta Aluminiozko lanak

Tel.: 649 95 15 03 / 649 97 30 41
Fax.: 943 14 02 86
aranola

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ
LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ELKANO ARRAINDEGIA
ARRAINAK, ITSASKIAK
ETA IZOZTUAK
TELEFONOA 943 140 192
KAIA GETARIA 20808

☞Zuen Txokoa atala edonork nahi duena bidali dezan egiteko egina dago: gutunak, argazkiak, zorion agurrak (bazkide ez direnek 4€), agurrak... Gutunek gehienez 200 hitz izan beharko dute: ez dira irainak onartuko. Bidaltzen diren dataren arabera jarriko dira bidalitako guztiak. Lekurik ez badago gure facebook orrialdean txinktxilikatzeko aukera emango da. Inor ez badu ezer bidaltzen, beste zerbaitetarako erabiliko dugu. Animatu atal hau erabiltzera zuena baita!

GUTUNAK

Parkea egiteko zuhaitzak mozten

Sahatsaga goiko parkea zaharberritzeko lanetan, bidearen ertzean zeuden zuhaitz guztiak moztu zituzten: 13 astigar eta 4 haritz. Herritar bat saiatu zen udal-ordezkariekin harremanetan jartzen, zuhaitz guztiak ez mozteko, baina ez zuen erantzunik jaso. Ez da hau moztu diren lehenbiziko zuhaitzak. Hainbat adibide ditugu: Garate gainean, osasun etxe berria eta igogailuaren inguruan, Aldamar parkean,…

Hori guztia oso larria iruditzen zaigu lau arrazoi nagusirengatik:

1. Neurri prebentiboak hartu izan balira, zuhaitz gehienak bere horretan mantentzeko edo lekualdatzeko aukerak zeuden.
2. Biodibertsitatea errespetatzeko, bertakoak ditugun zuhaitz-espezie kalteberak edertasun funtziotik haratago lagungarriak direlako.
3. Beste hainbat udalerritan bezala, lur publiko gutxi dugu eta, egoera horretan, are garrantzitsuagoa da ondare kolektiboak ahalik eta hobekien zaintzea.
4. Herritarrak ditugun hainbat behar gauzatzeko ingurumenean eragina sortzen dugu eta beharrezkoa da aurrez berreskuratze egitasmoak izatea.

Eskari hau luzatzen diogu Getariako Udalari:
NEGUA AMAITU AURRETIK ZUHAITZ-LANDAKETA ESANGURATSUA EGITEA. HORREKIN BATERA, FUNTSEZKOA DA HERRIRAKO INGURUMEN IRIZPIDEAK ZEHAZTEA HORRELAKORIK BERRIZ GERTA EZ DADIN.

Oharra: Bi bilera izan dira Udalean gaiaren inguruan. Aurreikusten da Sahatsagako lanak bukatu bezain pronto birlandatze bat egitea. Horren berri emango da herrian kartelak ipiniz.

Andreina Mata, Juanjo Perez, Mirene Begiristain eta 102 herritarrek sinatutako gutuna

Getariarrok erabaki

2013an abiatu genuen herritar guztion bizi-kalitatean eragiten duten gaien inguruko gogoeta. Zuzenean ikutzen diguten gaien aurrean protagonista nagusiak izan behar dugula konbentzituta, ariketa kolektibo ireki, parte-hartzaile eta erabakitzaile bati ekin genion. Eztabaida txikien bidez oinarri sozialak adostu eta denOn artean Eskubide Sozialen Karta sortu genuen.

Getarian gainera, hasierako ibilbidetxo hura aktualitateko hainbat gai jorratzen zituzten hitzaldi, erakusketa etab.ekin aberastu genuen. Eztabaidetan parte hartu zuten getariarren ideiei forma eman eta herriko hainbat eragilerekin batera hezkuntzaren etorkizuna, oinarrizko errenta unibertsalerako aukerak... ezagutzeko parada izan genuen getariarrok.

Eta orain, bizitzaren sustengua erdigunean jarriko duen gizarte eredua defendatzera gatoz. Horretarako, jada, Getariako buzoi guztietara eraman ditugun aldarrikapenak, “Programa Soziala” deitu zaiona, eta mobilizazioa ditugu ardatz.

Getariarrok ere salbu ez garen langabezia, prekaritatea, pobrezia eta desberdintasun sozialekin amaitu behar dugu. Posible eta beharrezkoa zaigu! Eta alternatiba badugu!

Getarian, gure bizitzez guk erabaki behar dugula pentsatzen dugun hainbat lagun elkartzen hasi gara. Batetik, denen artean erabakitakoa aurrera ateratzeko, martxoak 14ko manifestazioak adibide, eta bestetik, Getarian egin nahi dugunaz eztabaidatzeko. Antolatzen ditugun bilera guztiak irekiak dira eta beraz, herritarrak animatu nahi ditugu beraietan parte-hartzera. Guztiok gara beharrezkoak!

Getariako Eskubide Sozialen Karta

ZORION AGURRAK

Amaia Osa
Martxoak 12

Zorionak eta urte askotarako!
13 muxu potolo etxekoen partetik.

Izaskun Urbieta
Martxoak 30

Zorionak Izas! eta muxu handi bat lan talde guztiaren partez.

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK
IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

ITXASPE TABERNA



Aitor Irigoien, Beñat Gereka eta Mikel Mugika

Getaria letren mundua: Iturzaeta

Futboleko hainbat kamixeta jantziko genituen txikitatik, baina, dudarik gabe, bereziena eta ilusio gehien pizten ziguna Iturzaetako plaierotako kamixeta txuri haundi eta mangaluzea izango zen. Zenbat gau partidu bezperetan lorik hartu ezinean, urduri, emozioz gainezka, hurrengo eguna iristeko irrikitan… Zenbat amets kamixeta hura jantzi eta Zarauzko hondartzan futbolean aritzeko… Urte ugari igaro arren, atzo izan balitz bezala bizitzen ditugu une haiek oraindik…

Hain zuzen, armarioan ondo gordeta izan dugun kamixeta haietako bat eskutan genuela, urrezko galdera bururatu zitzaigun batbatean: Nondik dator Iturzaeta izena? Denok dakigu Herri Eskolak horrela izena duela, baina nor izan zen Iturzaeta? Irakurtzen, idazten edota marrazten bere izeneko eskolan ikasiak garenez, merezi zuen ikerketa martxan jartzea, eta bide batez, gure omenalditxoa egitea! Ze gutxio!

Jose Frantzisko Iturzaeta Eizagirre 1788an jaio zen gure herrian, familia apal batean. Getarian ez zituen, ordea, urte asko egin, txikia zenean osabarekin eta izekorekin bizitzera joan baitzen, lehenik Irunera eta ondoren Donostiara. Azken honetan ezkondu ere egin zen gazterik. San Martzialgo borroka eta Donostiako sutea-suntsipena medio, alabaina, 1813an, 25 urterekin, Tolosara lekualdatu behar izan zuen. Han, administrazioko postu garrantzitsu batean egin zuen lan.

1816an, bere bizitzari bira handia eman zion: emaztea eta seme alaba hemen utzita, Madrilera joan zen kaligrafia (modu egokian eratutako idazkeraren artea) ikastera.

Han, kaligrafian aditua bilakatu zen, eta ibilbide profesional oparoa izan zuen arlo honetan zein irakaskuntzan: 1820an, eskola pribatu bat sortu zuen; 1835ean, bere kaligrafia liburua hezkuntzan derrigorrezko izendatu zuten eta berak sortutako idazteko metodoa ezagun bilakatu zen; 1836an, Lehen Hezkuntzako ikuskari orokor eta Irakasleen Eskola Zentraleko zuzendari izan zen… Horrez gain, 1816-1848 artean, kaligrafiari buruzko hainbat liburu argitaratu zituen, *"Arte de escribir la letra bastarda española"* ospetsua tarteko. 1853an hil zen Madrilen, 65 urte zituela.

Hala ere, bere lanaren fruituak ondorengoei utzita joan zen. Izan ere, letra minuskulazko topografia propioa sortu zuen: bitxia, sailkaezina, kurba zehatzekin, lumaz idatzitakoa zirudiena… Orain dela gutxi berregin dutena eta **"lamia"** izena eman diotena. Beraz, ordenagailuan idazterakoan, Arial, Times New Roman edota Verdana bezalako ohiko tipografiez gain, Getariako seme Iturzaetak sortutakoa ere badugu aukeran! Sinestezina!

Historian ezagunak dira getariarron arrantzarako edota itsas nabigaziorako gaitasunak, baina letren munduan ere, Iturzaeta lekuko, lan politak egindakoak ere bagera! Apaltasuna galdu gabe, baina hain herri txikia izateko, ez gera makalak!

Moda munduan aditua

aritz iribar

Moda diseinatzaile ikasketak burutu zituen Madrilen, eta orain ile apaintzaile ikasketak amaitzear aurkitzen da. "Betidanik gustatu izan zait ilearen sormena lantzea. Modak bezala joko asko duela iruditzen zait" aipatu du. Otsailaren 13an klasekideekin antolatutako desfilea izan dugu hizpide.

Irudiarekin lotutako ikasketak dira biak. Zein ezberdintasun eta antzekotasun daude bien artean?

Ezberdintasunak, materia aldetik, lan egiteko modua esango nuke. Berdintasunak aldiz, buruan dauzkadan ideiak islatzeko moduak direla biak.

Emakumearen irudia lantzera mugatzen zara soilik, edo ez?

Emakumeak zein gizonezkoen irudiak lantzeko nago prestatuta eta biak egiten saiatzen naiz, baina emakumeekin lan egitea askoz ere dibertigarriagoa iruditzen zait. Emakumeek joko gehiago dutela iruditzen zait bai modan baita ile-apainketan ere.

Desfileko bi jainkosa.

Otsailaren 13an desfilea antolatu zenuten. Zer dela eta?

Ikasketen amaiera zela eta, ikusentzunezko irakasgaian klasekideok desfile bat antolatzea erabaki genuen, egindako lana familia eta lagunei erakusteko.

Zenbat partaide zineten?

Klasekideez gain estetikakoen laguntza izan genuen makillajeak lantzeko. Gutxi gora behera modelo eta guzti 80 bat pertsona ibili ginen guztia antolatzen.

Gai konkretu baten inguruan egin zenituzten orrazkerak?

Bai, desfilearen gaia jainkosa mitologikoak izan ziren.

Zerk inspiratu zintuen?

Udan egunkariak ekartzen duen aldizkari batean jainko eta jainkosa mitologikoen erakusketa bati buruzko artikulua irakurtzen ari nintzela hondartzan, buruari bueltak ematen hasi eta artikulua bukatu baino lehenago klasekide bati whatsapp bat idatzi nion desfile bat egiteko ideia kontatuz. Eta handik aurrera dena lotzea oso erraza egin zitzaigun.

Zein izan ziren modeloak? Beraiek zeramaten erropen inguruan zuen iritzia kontuan hartu zen?

Modeloen gehiengoa eskolako ikasleak ziren. Kasting bat egin genuen aurpegiko ezaugarriak pertsonaiekin hobekien zetozenekin lotzen, beti ere itxura orokorra pixka bat kontuan izanda.

Arropei buruz ia arropa gehienak egiterakoan nire iritzia kontuan izan zuten eta horietatik asko josten ere parte hartu nuen.

Nolako esperientzia izan zen?

Esperientziak hiru fase izan zituela esan dezaket. 1. Hasieran: emozionantea. 2. Desfile aurreko azken bi asteak: oso estresantea. 3. Desfile eguna: oso satisfaktorioa, gehienbat familiak eta lagunak zure lana hain positiboki baloratzen dutenean.

Anekdota berezirik kontatzeko?

Nire modeloetako batek nik eskuz eginiko ileorde bat jantzi zuen, baina desfilea baino bi aste lehenago eskolako neska batek estentzio batzuk zirelakoan beretzat hartu zituen. Azkenean harrapatu genuen zein izan zen eta bueltatu egin zizkigun. Eskerrak!

Beste hainbat desfile edo ekintza burutu dituzu, esaterako Balentziaga museoan: kurtsoak eman dituzu… Zer gauza egin dituzu?

Bai, iaz Balentziaga museoan antxoa eguna zela eta, gaztetxoei zuzenduta, herriko sare konpontzaileek eta nik, sareari buruzko masterclass txiki bat eman genuen, amaieran, bakoitzak mantoi kustomizatu bat eginaz. Honetaz aparte Madrileko Cibeles moda astean kolaborazioak egin nituen desfiletako backstage-etan han bizi izan nintzen hiru urtetan. Eta azkenik, eta udarari begira, koilare eta osagarri batzuk osatutako kolekzio txiki batean nabil lanean. Beti badut zer egin, ezin dut geldirik egon.



Izaskun Urbieta

Aritz Iribar

KORRIKA GETARIAN

▲ Otsailak 20an, Mus Txapelketa egin zen Berdura Plazan, 22:00etan. 16 bikotek hartu zuten parte eta irabazleak Iñaki Iraola eta Joxe Campos izan ziren, eta bigarren geratu zirenak Joseba Fuentes eta Nekane Arakistain.

▲ Martxoak 15ean antolatzaileak plazan jarri ziren Korrikako materiala saltzen. Eguraldiak lagundu zien eta asko saldu zuten.

▲ Martxoak 18an, Korrika txiki egin zen eta txikienek herrian zehar korrika egin zuten. Ondoren, plazan txokolatada egin eta, murala margotzeko aukera izan zuten. Amaitzeko 18:00etan Aitzpea Iribar ipuin kontalariak emanaldia egin zuen liburutegian.

▲ Korrika egunean Berdura plazan norberak bere bazkaria eramanez bertan jateko aukera izan zen. Antolatzaileek parrilla eta sagardo txotxa jarri zuten. Arrakasta handia izan zuen Berdura plaza guztia bete baitzen. Giro bikaina egon zen Korrika pasa aurretik.

▲ Korrika Kale Nagusira sartzen ari den unea. Testigua Gaztetxeko kideek daramate.

▲ Artzape Euskara Elkartekoak Zumaia bidean testigua hartu zuten. Izaro Uzin, Nerea Kamio (testiguarekin) eta Jon Ander de la Hoz izan ziren elkartearen izenean parte hartu zutenak. Argazkia Korrikako furgonetatik atera zen.

Ulpiano etxearen inaugurazioa

Ulpiano etxearen inaugurazioa egin zen otsailaren 28an. Mediku maitatua herrian, osasun zentro berriari bere izena jarri diote. Inaugurazio ekitaldian Txeruko dantzariak, Gazte Alaiak txistulariak, Udal Bandak eta Getariako Abesbatzak emanaldia eskaini zuten.

Anbulatorioa izateaz gain, haurtzaindegia eta eguneko zentroa bertan daude. Gainera, herritarren eskuragarri Ulpiano gela izeneko toki bat dago.

Juan Martin

Emakumeen Nazioarteko eguna Getarian

Aurten inoiz baino egitarau zabalagoarekin ospatzeko aukera izan zen Emakumeen Nazioarteko eguna Getarian.

Martxoaren 1ean, urtero egiten den moduan, herriko hainbat emakumeek Lilaton lasterketan parte hartu zuten Donostian.

Martxoaren 6ean, liburutegian ipuin kontaketa egin zuen Aingeru Aramendik 5-10 urte bitarteko haurrei zuzenduta, baino txikiagoak ere gurasoen laguntzarekin joateko aukera izan zuten.

Martxoaren 7an, herriko emakume bat omendu zen; Itziar Aizpuru aktorea. Plazan egin zitzaion omenaldia. Denetarik egon zen, txalaparta, aurreskua, opariak eta sorpresa ezberdinak...

Eguna amaitzeko, 22:00etan, “LOREAK” filmaren emanaldia eman zen eskolako aretoan.

Martxoak 26ean, 19:00etan, Mari Luz Estebanen hitzaldi irekia egon zen: "Feminismoa, etengabe eraldatzen": Gaur egungo teoriko inportanteenetariko bat da Esteban, maitasun erromantikoaz, amatasunaz, gorputzaz egin dituen liburu, artikulu eta hitzaldiengatik.

Amaia Irazabal poesia egunean Bilbon

Martxoaren 23an Nazioarteko Poesia eguna ospatu zen, eta horrek Amaia Irazabal partaide den Lekord taldearen emanaldia suposatu zuen Bilboko Bidebarrieta kulturgunean. Lekord taldea bi musikok (arpa eta perkusioa) eta bi aktorek osatzen dute eta euskal musikarekin eta euskarazko testuekin errezitaldi modukoak egiten dituzte. “Prestatuta dugun ikuskizuna, SOKAK, euskara hutsean da eta testuak nik idatziak dira, asko Artzapen argitaratutakoak. Baina Bilboko poeta ezagunen testuak ere sartu genituen, hala nola, Gabriel Aresti, Anjela Figuera edota Rafael Alberti bezalakoenak” kontatu du Amaiak.
Hurrengo emanaldia Gasteizen izango dute apirilaren 20an.

San Prudentzioko festak 2015

Ostirala, 24
22:00etan, MUS TXAPELKETA, Xabin Etxean.

Larunbata, 25
17:00etan, UME JOLASAK, Manex Beristainen laguntzarekin.
20:00etatik aurrera, BERTSO AFARIA, Jon Maia eta Uxue Alberdirekin.
* Menua: Zurrukutuna, zikiroa burduntzian eta gazta, menbriloa eta intxaurrak. Ardoa, sagardoa eta ura. Guztia 15 eurotan.
Ondoren, ERROMERIA: Fun & Go.

Igandea, 26
10:30ean DIANA, Gazte Alaiakoekin.
Ondoren, txistulariak San Prudentzio Martxa eta Erretreta abestiak joko dituzte.
11:00etan MEZA.
12:00etan DANTZA SAIOA. Txeruko dantzariekin.
Jarraian, HERRI KIROLAK: Iparraldeko jokuak.
Ondoren, parrillada trikitilariekin girotuta.

Asteartea, 28. San Prudentzio eguna
11:00etan MEZA NAGUSIA.

Urtero moduan, prest dira San Prudentzio auzoko festak. Iaz festa batzordea osatu zuten auzoan, eta aurten ere hainbat ekintza eta jolas antolatu dituzte. Berrikuntza gisa apirilaren 25ean, larunbatean, egingo den bertso afaria aurkitu daiteke. Jon Maia eta Uxue Alberdi izango dira bertsolariak, baina berezitasun nagusia afariko menuan dago. “Baztango gastronomiarekin lotu dugu menua” kontatu dute Ekaitz Esteban eta Andrea Hamill, batzordeko partaideek. “Jon Goenagaren ideia izan da zikiroa burduntzian erretzearena. Han, Baztanen ere zikiro gutxi egiten dira, baina 2 lortu ditugu” esan dute. 80 pertsonentzako afaria egingo dute, eta 15 eurotan jarriko dituzte txartelak salgai. “Balentziaga kalekoek utzi digute karpa eta bertan emango dugu afaria, eta hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu. Auzoko festa hauek, ohiko programa eta ekintzez gain, zikiroarekin lotzea eta hemen inguruan horren erreferente izatea lortu nahi dugu, urteetan honekin jarraitzea” kontatu dute.

I. Getariako Triatloia izango da maiatzaren 1ean

Hilabete asko ez dira Getaitri Getariako Triatloi Kluba sortu zenetik, baina denbora alferrik ez dutela galtzen igartzen da. Izan ere, datorren maiatzaren 1erako Getariako I. Triatloi proba antolatu dute. Ilusiorik ez zaie falta, eta izen-emateak ere arrakasta handia izan du. Dagoeneko 200 pertsonak eman dute izena, eta parte hartzaile kopurua 300 triatletara mugatuko dute.

Sprint bezala ezagutzen den lasterketa osatu dute herrian. Igerian, 750 metroko ibilbidea egin ondoren, bizikletan 20 kilometro osatuko dituzte, eta bukatzeko, beste 5 korrika egin beharko dute partaideek. Arratsaldeko 16:00etan hasiko da proba, eta Euskal Herriko egutegiko lehenengoa izango da gainera.

Getaitriko Facebook

Eusko Jaurlaritzak herritarren parte-hartzerako prozesua ireki du, klima-aldaketari buruzko etorkizuneko euskal estrategia lantzeko.

Herritarren eztabaida-prozesu bat abiatu da, irekia.eus plataformaren bitartez, gaur egun lantzen ari den Klima-Aldaketaren aurkako Euskal Estrategiaren inguruan. Horretarako, zenbait kanal ireki dira lankidetza-prozesuan parte hartzeko: Irekia plataforma, sare sozialak eta esparru presentzialak. Prozesu parte-hartzailea amaitzean, bildutako informazioa ekarpenak kontuan hartuko dira "Klima-Aldaketaren aurkako 2050erako Euskal Estrategiaren" behin betiko bertsioa erredaktatzeko.

Estrategia berri honekin, Euskadik giza garapen jasangarrirako etorkizuna diseinatzen du. Gure mendi, haran, ibai, baso, hondartza eta labarrak gure paisaiaren osagaiak eta euskal idiosinkrasiaren osagaiak dira. Naturarekin duen identifikazio horregatik, Euskadik ingurumen-politika handinahia garatu nahi du.

Politika horren ardatz nagusien artean, munduko klimaren berehalako arrisku eta erronkei aurre egitera zuzendutako ekintzak daude. Nahiz eta Euskadik Europar Batasuneko osoko emisioen % 0,5 baino sortzen ez duen, klima-aldaketak garrantzi handia izango du Eusko Jaurlaritzaren lan-ildoetan.

Eztabaidarako galderak

1. Ingurumenaren arloan, klima-aldaketak kezkatzen zaitu? Zure ustez, nola eragin dezake Euskadin?
2. Egokia iruditzen zaizu Euskadik bere Klima-aldaketaren Estrategia propioa izatea? Zergatik?
3. Zein dira gauzatu beharreko lehentasunezko ekintzak klima-aldaketaren ondorioak murrizteko eta gure lurraldea ondorio horietara egokitzeko?

Ekarpenak egiteko kontsulta daitezkeen dokumentuak Irekiaren webgunean daude ikusgai. Halaber, Twitterren bidez ere parte har daiteke, #Klima2050 hashtag-arekin.

Informazioa gehiago:
Tel. 943 896024
www.irekia.euskadi.eus
maizpuru@getaria.org

URTARRILEKO SOLUZIOAK

SUDOKUA

1	3	2	7	6	4	8	5	9
4	9	5	2	8	3	1	7	6
8	6	7	1	9	5	2	3	4
9	7	6	4	1	8	5	2	3
2	8	3	5	7	6	4	9	1
5	1	4	9	3	2	7	6	8
6	2	9	8	5	1	3	4	7
3	4	1	6	2	7	9	8	5
7	5	8	3	4	9	6	1	2

ASMAKIZUNAK

1- Nola zula liteke globo bat bertatik airerik atera gabe eta zatarik egin gabe?

ZULATU GABE

2- Bi txotxa bakarrik mugituta 4 lauki lortu behar dira. Hau da, orain daudenak baino bat gutxiago eta txotxa bakar bat ere ez soberan izanda.



SIZ
Servicios Informáticos Zarautz
Venta de equipos informáticos
Mantenimiento
Academia de informática
Diseño de páginas web
Urdaneta, 2 bajo · 20800 Zarautz
tel. 943 894 014 · fax 943 133 410
www.zarautz.com · siz@zarautz.com

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrilan espezialitatea
kaia, 1
20808 GETARIA Tel.: 943 14 04 12

ASKIZU
Udal aterpetxea
Ingurugiro eskola
Erreserbak: 943 833 641
www.albergue-getaria.com
Askizu auzoa z/g 20808 Getaria - Gipuzkoa

Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
barne diseinua interiorismo
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@hotmail.es

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

Udaletxeko artxiboetatik ...EREITEN kultur zerbitzuak

Altxor txikiak berreskuratzen direnean

Hilabete hauetan Getariako artxiboa antolatu eta eguneratzeko lanetan murgilduta gabiltza. Paper eta kartoizko kaxa artean igerian. Horrelako lanetan aritzen garenean, noizean behin gertatu izan zaiguna gertatu zaigu oraingoan ere. Kaxa batean gordeta zegoen altxor txiki bat berreskuratu dugu. Altxor grafiko bat.

Kristalezko 13 negatibo eta 20 bat fotografatu agertu dira artxiboan gordeta. Toki desberdinetako argazkiak dira, tartean Getariako eta Pasaiako badiako zenbait argazki zahar eta oraindik identifikatu gabeko beste batzuk. Udaletxean bazuten negatibo hauen berri eta guk orain digitalizatzeko ardura hartu dugu.

Negatiboak Don Federico Olive Prieto herriko botikaria izan zenarenak direla jakin dugu. Federico Madriletik etorri zen 1910 inguruan eta herriko botikaren ardura hartu zuen. Itxuraz argazkizale amorratua zen, argazki ugari egiten dituzten horietarikoa. Bera hil zenean, 1949 urtean, Jose Domingo eta Fermin Olascoaga Rotetak botikariak alokatua zuen etxeko garbiketa egin eta bertako trasteak zabortegira eraman zituzten. Hala ere, bertan bota zituztenean, pilatutako traste guzti haien artean, diztira egiten zuen zerbait zegoela konturatu ziren. Gerturatu eta orduan ikusi zuten diztira hura kristalezko negatibo eta fotografatuek sortzen zutela. Gordetzeak pena merezi zuela pentsatu, topatutako guztiak bildu eta udaletxera eraman zituzten bertan gorde zitezen. Ordutik artxiboko kaxa batean egon dira gordeta.

> “Don Federico Olive Prieto herriko botikaria izan zenarenak direla jakin dugu”

> “Topatutako guztiak bildu eta udaletxera eraman zituzten bertan gorde zitezen”

Kale Nagusiko irudia Corpus Christi egunean.

Berreskuratutako kristalezko negatibo honetan San Roke kalea ageri da.

Denboran atzera

1980.urtean egin zen lehenengo aldiz Garai Bateko Euskal Ezkontzaren antzezlana herrian. 35 urte beranduago berriro iraganera jauzi egiteko aukera izango da.

Martxoaren 28an egingo da bigarren aldiz Garai Bateko Euskal Ezkontzaren antzezlana. Guztira, 130 herritar inguru ibili dira azken hilabeteetan prestaketak burutzen. Hiru taldetan banatu dira: arropak, dekorazioa (baserria egin eta frontoia girotuko dutenak, ia guztia material birziklatuarekin) eta atrezzoa (arreoa eta Gure Txeru arrantzale baten etxe bat girotu dutenak).

Euskal ezkontza, Getariako arrantzale baten eta baserritar baten arteko ezkontza izango da. Laburbilduz, baserritarra (andregaia) galtzadatik jaitsiko da bere familiarekin eta trikitilarien laguntzarekin; arrantzalea (senargaia) Gure Txerun izango du zain bere familiarekin eta gonbidatuekin.

Andregaia Akerregi gainetik jaitsiko da bere senitartekoekin, trikitilariekin eta bere gonbidatuekin. Hauekin guztiekin idiekin lotutako gurdia eramango dute arreoarekin osatuta. Handik udaletxera joango dira eta bertan, herriko beste protagonista batzuk egongo dira: alkatea, medikua, apaiza, mikeleteak… Korporazioarekin argazkia atera eta behera jaitsiko dira.

Gure Txerun senargaia egongo da zain. Bere etxea izango da, itsas kutsuarekin atondutako etxea. Han elkar agurtuko dira eta elizarantz joango dira. Ezkondu egingo dira eta elizatik ateratzean, zapiekin osatutako harrera egingo diete familiartekoek.

Artzape aurrera joango dira ezkonberriak. Han bertsolariek bertsoak botako dizkie eta azkenean frontoira iritsiko dira Elkano kaletik igota.

Frontoian, emanaldiaren azken momentu garrantzitsua ospatuko da. Bertan, dantzak egingo dituzte; bai ezkonberriek, eta baita gonbidatu eta senitartekoek ere. Guztira, lau dantza osatuko dituzte: Soka dantza, Axuri beltza, Fandango/Arin-arina eta Pasakallea.

Lan asko egin dute bertan parte hartu behar duten herritarrek. Hori dela eta, Udaleko zinegotzi den Amaia Iribarrek eskerrak eman nahi dizkie baserria egiten buru belarri jardun duen taldeari, josteko eta dantzetako tailerrak aurrera eraman dutenei, arropen konponketa lanetan lagundu dutenei, txistulariei, trikitilariei, Zarauztik eta Lezotik aholkuak eman eta arropak utzi dizkigutenei, Ane Albisuri (Euskal Arropa Tradizionalean aditua) arropa inguruan emandako aholkuengatik, Getariako elizari... “Guzti-guztiei, mila esker, izan ere beraien laguntza gabe zaila izango zen ekimen hau aurrera eramatea”.

Argazkia Olatz de la Hoz-ek utzitakoa da.

Irudian agertzen den moduan, ezkonberriak behatz txikiekin helduta atera ziren elizatik.
Argazkia Enkarna Olaskoagak utzitakoa da.

Andregaiaren soinekoaren historia

Enkarna Olaskoagak egin zuen andregaiaren papera 1980ko abuztuaren 7 hartan, Salbadore jaietan. Senargaia berriz, Jexux Campos izan zen.

Garai hartan Ixak Ostolaza zen Getariako alkate. Berak kontatu duenez, “nahiko atrebentzi izan genuen hau guztia antolatzen. Herrian inoiz egin gabeko gauza bat zen, eta dirua ere tamainan zegoen orduan. Hau bakarrik ez, beste gauzak ere tamainan zeuden. Gogoratzen da adibidez, arropak beste herritatik lortu zirela, batzuk alokatu ere egin zituztela… “Andregaiaren soinekoarekin ere badago anekdota polit bat” esan du Ixakek. Zer gertatu zen, ba?

Horretarako Enkarna berari galdetu zaio. “Soinekoa Abadiñotik ekarri zuten. Hango emakume bat getariar batekin zegoen ezkonduta, eta emakume haren amonarena zela usten dut ” aipatu du. “Ordurako 100 bat urte zituen soinekoak. Eta noski, soineko horretan sartu egin behar zen, neurri batzuk zituen” jarraitu du. Mikeli de la Hoz-ek eta berak probatu zuten soinekoa. “Soineko horretan sartzeko gu ginen itxuraz egokienak. Kultur etxean probatu genuen, eta gero han zegoen jendeak ikusi gintuen. Aurrena Mikelek probatu zuen, ni bigarrena izan nintzen. Jendearen itxurako, niri hobeto geratzen zitzaidan, orduan ni izan nintzen aukeratua” amaitu du. Ondoren, bere izeko jostun batzuek soinekoa dotoretu egin zioten, detaile gehiago jarriz.

Udaletxeak bultzatutako ekimena izan zen, eta herritarrek hartu zuten parte bertan. “Guztira 80 pertsonek hartu zutela parte esaten badut ez naiz astakeria bat esaten ari” aipatu du Ixakek. Nahi zuen edozeinek zuen parte hartzeko aukera, eta jende askok kolaboratu zuen.

Arreoaren prestaketa

Hilabete honetan egingo duten bezala, orduan ere taldetan banatu ziren antzezlana prestatzeko. “Talde bakoitzak bere jarduna zuen eta horrela osatu zen” aipatu du Ixakek.

Prestaketa handietarikoa arreoaren osaketak suposatu zuen. “Andregaiaren papera nik egin behar nuela jakin nuenean, nire aldeko guztia prestatu behar izan nuen” kontatu du Enkarnak. “Baserritik etortzen nintzen pertsona nintzen. Eta horrek arreoa preparatzea suposatzen zuen” gaineratu du.

Zerk osatzen zuen baina, arreoa? “Denetarik lortu genuen. Cristobal, orduko zinegotzia eta biok, baserriz baserri joaten ginen gauzen bila. Kamisoi luzeak, txorrerazko alkandorak, kutxak, harizko izarak, mantak, pixontziak, kazuelak…” esan du Enkarnak.

Gauza horiekin nahikoa ez eta gurdia osatzeko Zubietara joan ziren. “Cristobalen andrearen izeko baten ahizpak Zubietan antzinako gauza asko zituen, eta han joan ginen horien bila” gogoratu du.

Frontoiko momentua ere oraindik gogoan du Enkarnak. “Ni eta nire senarrak fandangoa eta arin-arina dantzatu genuen. Eta noski, ikasi egin behar izan genuen” esan du. Gainera, 8 mutilek soka dantza egin zieten ezkonberriei.

Urduri egon zela gogoratzen du, “batez ere dantzako momentuagatik”. Anekdota politak ere gertatu zitzaizkion. “Ekitaldia bukatu ondoren, kanpotik etorritako pertsona askok galdetzen zidaten ea benetan ezkondu nintzen” esaten du barrez. “Eta gero, nire lagunekin Menorcara joan nintzen oporretara. Han zeinekin topatuko eta… Aurreko urtean Zarautzen andregaiaren papera egin zuen neskarekin”. Izan ere, Zarauzko Euskal Jaitan antzeko antzezlan bat egin zuten.

Argazkia Eneritz Manterolak utzitakoa da.

Argazkia Juantxo Larrañagak utzitakoa da.

Itxurazko baserria

"Ezkontzako arropez eta arreoaz gain, baserriaren osaketak eman zuen lan dezente" esan du Ixakek. "Oso txukuna geratu zen. Ni benetan txundituta geratu nintzen" gaineratu du.

Juantxo Larrañaga margolariak eta berriki hil den Jose Antonio Iribar arotzak egin zuten baserria, beste askoren artean. "Festa egin behar zela, eta laguntza eskatu ziguten" esan du Juantxok. Txeruko sortzaileetakoa, bertako partaidea zen orduan.

"Aurretik ere baserri batzuk margotuta nituen, hemen ingurukoak, eta hauetan pentsatuta osatu nuen" aipatu du. "Baserri itxurako sagardotegi moduko bat egin genuen. Arotzak egurrekin egitura osatu, eta nik neurriak hartuta, papera erosi eta bertan margotu nuen baserriaren fatxada: balkoia, leihoa… eta adreilu itxurakoa ere pintatuta dago. Margoak lana bazuen, zahar itxura eman, detaileak zaindu… baina ez zitzaidan askorik kostatu, gainera gustura egin nuen" gaineratu du Juantxok.

Aurretik lana suposatzeaz gain, muntaia handia ekarri zuen baserriak. "Egun bertan oso goiz egin genuen. Pentsatzen dut bezperan materiala ekarri eta gero han muntatuko genuela egunean bertan. Jende mordoa elkartu ginela gogoan dut, barrikak ekarri, lastoak… lan handia zuen bai".

Herritarren partetik zorion asko jaso zutela akordatzen da Juantxo. "Gu oso gustura geratu ginen lanarekin eta jendea harrituta geratu zen. Espektakularra zen, frontoia guztia hartzen zuen, eta urrutitik ere ikusten zen, dimentsio handikoa baitzen".

Orduko hiru protagonistek larunbatean beste ikuspuntu batetik ikusiko dute antzezlana. Ixakek ez zuen parte hartu, eta orain lehen eskutik bizitzeko aukera izango du, bertan parte hartuko baitu. Enkarnak aldiz, beste perspektiba batetik ikusi nahi du, eta antzezlanaz beste modu batean gozatu. "Nerbioak alde batera utzi eta lasai-lasai txoko batetik ikusiko dut". Juantxo, Zarautzen bizi da baina gerturatuko dela aipatu du. "Arrebaren biloba da gainera senargaia". Hirurak pozik daude berriro egingo baita hain ondo atera zen antzezlan eder hau.

Iturzaeta Herri Eskola

Inguruko baserriak ezagutzen Askizun

6. mailako ikasleak Askizura joan ginen otsailaren bukaeran.

Goizeko lehen orduan eskolako atarian denok elkartu ginen. Gure ikaskideen baserriak bisitatzera joan ginen, Ziarre eta Agerre Berri baserrietara.

Askizura oinez abiatu ginen. Askizura iritsi bezain azkar, ur pixka bat edan eta Agerre Berrira abiatu ginen.

Baserriaren aurrean, gure ikaskidearen aita zegoen gure zain. Han, ongi etorria eman eta gero, ikusiko genuenaz azalpenak eman zizkigun. Ardiak bere jateko lekuan ikusi genituen. Arkume pare bat ere atera zituzten guk ikusi eta ukitzeko. Ondoren, ardi taldea pasatzen ikusi genuen; 900 ardi inguru omen dituzte.

Ardien inguruko azalpen batzuk entzun genituen, beraien jana eta bizimoduaren inguruan.

Ondoren, gazta egiten duten lekura sartu ginen. Bertan sartzeko, oinetan plastiko batzuk jarri behar izan genituen lurra ez zikintzeko. Gazta probatzeko ere eman ziguten, eta oso goxoa zegoen.

Atera ginenean, gure hamaiketakoa jan genuen Ziarre baserrira bidean. Bertan, ikaskidearen ama zegoen gure zain. Ongi etorria eman eta zeukaten negutegira sartu ginen. Tomatearen hazitokia ikusi genuen eta nola zaintzen zituzten azaldu zigun. Baratza plastiko batekin inguratuta zegoen haizeak ez jotzeko eta tenperatura mantentzeko.

Bisita bukatzean, ikaskidearen amak beraiek eginiko bizkotxoa banatu eta ederki jan genuen. Hori ere goxoa zegoen.

Baserriko jendeari eskerrak eman eta agurtu ondoren eskolara oinez itzuli ginen.

Oso ondo pasa genuen eta oso dibertigarria iruditu zitzaigun.

Mila esker gonbidatzeagatik!!!

6A gela

Pazko astea gogoz hartuko dugu

Hilabete batzuk pasa dira azkenekoz idatzi genuenetik. Aurrekoan gabonetan egin genituen ekintzen berri eman genizuen. Prestatu genuen Aste Solidarioa benetan positiboa izan zen bai herriarentzat bai bertan parte hartu zuten gazteentzat. Eta hemendik aprobetxatu nahi dugu lagundu zenuten guztioi eskerrak emateko.

Urtea aurrera doa eta nahiz eta udako oporretarako asko falta hementxe bertan ditugu jada Aste Santuko oporrak! Egun batzuk deskantsatzeko eta plan desberdinak egiteko aprobetxatzeko aukera aproposa eskaintzen digute beti ere eguraldiak laguntzen badu.

Gaglon ere egun batzuk deskantsatu ondoren (izan ere apirileko lehenengo bi asteburuetan gaztelekua itxita egongo da) pazko astea gogoz hartuko dugu, goiz eta arratsaldez irekita egongo delarik. Oporretako ordutegi berezian gaztelekua goizean 10:30etatik 13:30etara irekita egongo da eta arratsaldean 4:30tik 7:30etara, antolatutako ekintzak ondorengoan izango direlarik.

Astearte goizean Frontenis txapelketa jokatuko dugu eta arratsaldean indarrak berreskuratzeko sukaldaritza tailerra egingo dugu. Asteazkenean berriz, kirol modalitate berri bat estreinatu eta probatuko dugu, Kin-ball-a. Kirol hau pilota handi batekin jolasten da kantxa itxi batean, hiru ekipo zelaian aurkitzen diren bitartean. Arratsaldean gaztelekuan elkartuko gara topagune bezala zabalduz.

http://kinballcantabria.blogspot.com.es/

Osteguna izango da egun bereziena, Bilbora irteera egingo baitugu. Goizean autobus geltokian elkartu eta Bilboruntz abiatuko gara. Iristean Guggenheim parean utziko gaitu autobusak eta museoaren inguruak hamaiketakoa egiteko aprobetxatuko dugu. Ondoren funikularrean Artxandara igoko gara, bisita honek pena merezi du, izan ere, handik Bilbo guztia ikusteko aukera baitago. Eguardi partean Doña Kasilda parkerantz abiatuko gara bertan bazkaltzeko. Azkenik, arratsaldean, Lasergunera hurbilduko gara han partida bat egitera.

Lehengo urtean Bilbora egindako irteera.

Astea bukatzeko, ostiral goizean, 3x3 saskibaloi txapelketa egingo dugu, polikiroldegi kanpoko kantxetan eguraldi ona baldin badago, edo barruan euria egingo balu. Arratsaldean, ostiralero bezala, gaztelekuan elkartuko gara. Bertan mahai jolasetan, pin-ponean edota Wii-an jolastera.

Bide batez gogoratu gaztelekua 12-17 urte bitarteko gazteentzat irekia dagoela.

Gaztelekutik gazte guztiak, neskak zein mutilak, animatu nahi ditugu pazko asterako prestatu diren ekintzetan parte hartzera.

eskura
Fisioterapia zentroa
JOSUNE UCIN BERASALUCE
697961208

Getaria
AUTOESKOLA
Herrerieta
23 Behea
Tel: 943 140 301
ORDUTEGI MALGUAK - EUSKARAZ EGITEKO AUKERA

Edurne Irigoien







KAIA - KAIPE JATETXEA
General Arnao, 4 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa)
Tfno. 943 14 05 00 • Fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com

HARRALDE
GETARIA NAGUSIA,17
☎ 14 07 04

Andres Alberdi

Meaga (Mia)

Auzoaren izena *Meagas* zela erakutsi ziguten, eta oraindik ere hala ageri da mapa askotan. Gaur egun badakigu, ordea, *Meaga* dela. Noiz edo noiz, gaztelaniaren eraginez erantsitako *-s* bat erantsi zioten, eta *Meaga* zena *Meagas* idatzi zuten. Horixe gertatu zen beste euskal izen hauekin ere: *Arrarteta* (Hiriberri (N)) zena *Arrartetas* idatzi zuten, *Arriaga* zena, *Arriagas* (Erandio, B), *Legarrea* zena, *Legarreas* (Olaitz, N), etab.

Meaga da jatorrizko izena, eta honela dago eratua: ***mea*** + ***-aga*** atzizkia. *Mineral* esan nahi du *mea*k. *Meaga*k, hartara, mineral-tokia (*Gorostiaga*k gorosti-tokia esan nahi duen moduan, edo *Arriagak* (h)arri-tokia). Izenaren etimologiaz ari gara hemen, ez historiaz. Historiako datuek eta indusketek esan beharko digute izenak dioena ea hala zen errealitatean (Meagan meategirik ba ote zen).

Mia esaten diogu ahozko moldean, aldaketa fonetiko normak hauek tarteko: 1) bokal arteko *-g-* ez ahoskatzea (*dago > dao* esatean bezala; edo eguzkia > *euzkia*). 2) bi *-aa-* horiek *-a-* bat egitea. 3) *-ea* > [ia] esatea, hauetan bezala: kalea > *kalia*, errea > *erria*. Horrela, beraz, *Meaga > Mia*.

Mea (edo *meatze*) osagaia Euskal Herriko beste izen hauetan era ageri da: *Meabe* auzoa (Markina-Xemein, B), *Meaka* auzoa (Morga, B), *Meatzerreka* auzoa (Arrasate, G), etab.

Artzapeko artxiboa

Amaia Irazabal

Gauak laguntzen du idazten

Gauak laguntzen du idazten.

Esaldi luzeagoak egiten dira
goizaldeko hiruretan
arratsaldekoetan baino.

Denak lo daudelako ideiak
pizten dizkizu argiak.
“Baten bat, ziur, komunera
joaten ari dela orain.”

“Demagun okindegikoaren iratzargailuari
bederatzi minutu t’erdi geratzen zaizkiola isilik,
ondo harrotutako ametsen usaina zabaltzen utzi arte…”

Pentsa dezakezu kasualitatez esnatu zarela,
ahaztuta zenuen,
baina biharko bidali behar duzun testua idaztera.

Eta berriz gogoratu dituzu
astearteko paseoan
zure lagunak esandako hitzak:
Gauak laguntzen du idazten.

Joxi Erauskin

Gainpopulazioa ere krisia da

Udaberria iritsi zaigu eta kimuak irteten hasi dira dagoeneko, ez Raxoik eta enparauek etengabe aipatzen dituzten kimu berdeak, langabezian daudenek ikusten ez dituztenak, baizik eta zuhaitzenak, loreenak eta naturarenak, orohar. Natura urtero berritzen da; gizakia, ordea, ez, urterik urte leku berean bi aldiz iraultzen jarraitzen baitu. Hori gertatu da krisi ekonomikoarekin, adibidez. Pentsalariek eta adituek esandakoari bizkarra ematen jarraitzen baitute finantza-sistemaren eta ekonomiaren agintariak, krisi sakon honetara eraman gintuzten akats bereberak errepikatuz. Ikusi besterik ez dago zer ekarri duen horrek: aberatsak aberatsago dira orain eta txiroak txiroago. Leize sakon bat sortzen ari da langile eta aberatsen artean, eta inork ez daki horrek denak nola bukatuko duen. Gizadi osoari eragiten dion arazoa bada ere krisiarena, bakoitzak berea bizi du gertutik eta ahal duena egiten du gainditzeko. Gure kasuan, ez gara herri hila, herri aktiboa gara eta ahalmen handikoa. Mendeetan zehar ondo jakin dugu gure kultura, ohiturak eta kanpotik zetozen aurrerapenak uztartzen, garaian garaikoari leku eginez.

Hala ere, dena ez doa nahiko genukeen moduan. Munduan, osorik hartuta, gainpopulazioa dagoen bitartean, Euskal Herrian jaiotza-tasa behera doa urterik urte etengabe. Europa, gure herria barne, zahartzen ari den kontinentea da, eta biziitxaropena geroz eta handiagoa denez, haur gutxiago jaiotzeak ez ditu etorkizuneko pentsioak bermatzen. Guzti horri inmigrazioaren errealitatea erantsi behar zaio, puri-purian dagoen gaia azkenaldian. Izan ere, gure arazo askoren aitzakiataz erabili ohi da askotan kanpotarren etorrera, guri ogia lapurtzera etorri direla eta horrelako adierazpen errazak eginez. Kontua da, ordea, kanpotarren eskulana beharrezkoa dugula gure ongizateari eutsi nahi badiogu. Hori ohartarazten ari dira aspaldidanik Gipuzkoaren kasuan, esaterako: milaka kanpotar beharko ditugula lanerako datozen urteetan, populazio orekatu bat izan nahi badugu.

Bestalde, gainpopulazioaren gaiari lotzen bagatzaio, populazioaren haziera aldakorra da planetako leku ezberdinetan. Orokorrean, populazio handiagoa dago garapen bidean dauden herrialdeetan herrialde garatuetan baino, Euskal Herria horren adibide.

Gainpopulazioa bihurtu da aspalditik adituentzat buruhauste handiak ematen dituen arazoa. Munduko errekurtsoak urritzen ari dira, populazioaren tasa etengabe gora doan bitartean: Urtero 80 milioi pertsona gehiago daude planetan, eta gehienak herrialde pobreenetan. Eta horrek denak erabakiak hartzea eskatzen du. Badira adituak esaten dutenak arazo horrek gizakia desagertzera eramango duela.

Horren harira, Alaskako Saint Matthew irlako elur-oreinekin gertaturiko historia harrigarria da benetan. Bigarren Mundu Gerraren amaieran gertatu zen,1944 aldera. Ameriketako 19 soldadu lehorreratu ziren, itsasoko irrati-sistema bat antolatzeko zereginarekin. Badaezpada ere, 29 elur-orein eraman zituzten janariarekin arazorik izan ez zezaten. Baina gerra handik urtebetera bukatu zenez, etxera itzultzeko agindua jaso zuten, 29 elur-oreinak bertan utziz. Animali haiek paraje ezin hobean geratu ziren, klima ederrarekin, landareak eta belarra ugari zituztela. Gainera, lasai bizitzeko baldintzak zituzten, harrapakinik ez baitzegoen inguruan.

Dena dela, 1957an ikerlari talde bat irlara itzuli zen eta ahoa zabalik geratu ziren. Hamahiru urteren buruan 29 elur-oreinak 1350 izatera iritsi ziren: izugarri ugaritu ziren. Baina harrigarriena handik sei urtera gertatu zen, 1963an; 6000 izatera iritsiak baitziren ordurako. Haziera ikaragarria, hurrengo bisitaldian bat-batean etengo zena.

1966an gaude, handik hiru urtera. Ikerlariak berriro bertaratu zirenean 42 elur-orein baino ez zituzten aurkitu, eta haietatik ar bat besterik ez, eta gainera antzua bera. Hiru urteren buruan kolonia oso bat desagertu zen. Zer gertatu zen, ordea? Erantzuna irlan bertan zegoen. Garai batean berdea eta ugaria zen lurra, lugorria zen orain. Bi urte jarraian izandako negu gogorren ondorioz, janaririk gabe geratu ziren; bizitzeko errekurtsorik gabe, azken batean.

Saint Matthew-eko elur-oreinekin gertaturiko kasua gizakiaren popularizaren hazierarekin konparaketa bat egiteko aukera hor dago. Hala ere, jakina, ezberdintasun asko dago Alaskako irlarekin konparatzen badugu gizadiaren kasua. Baina, bestalde, kezkagarria ere bada hainbat elementu amankomunean baditugula pentsatzea. Azken finean, baliabide naturalak mugagabeak eta betirako ez direla begi bistan dago.

Txoko berri honetan Artzapen argitaratuak izan diren albiste, bitxikeri edo/eta interesgarriak diren datuak jarriko ditugu.

3. zenbakia, 2001eko uztaila

***Getarian Zer berri* atalean Agustin Ezenarrok idatzitakoa**

Musika Eskola berria

Getariako Musika Eskola berria irailetik aurrera irekiko zeladatzi zuen Agustin Ezenarrok. Eskola honetan nahi zuen guztiak izango zuen aukera ikasteko: 4 eta 7 urte bitarteko haurrentzat, musikarekin lehen kontaktua izan zezaten. Beste aldetik, ezagutza maila zutenentzat beste txanda bat egongo zen eta zekitenek garatzeko eta hobetzeko aukera izango zuten.

Kondartxoren aurkezpena

Uda horretan Kondartxo aurkeztu zuten Arazi enpresako kideek. Hondartzan ibiliko zen panpina, informazioa ematen eta batik bat, haurrei hondartzetako garbiketako ohiturak erakusten modu dibertigarri batean. Izan ere, urte horretan hondartzetan hori koloreko zakarrontzia jarri zuten ontziak botatzeko eta erretzaileentzako zenizero bereziak banatzen zituen Kondartxok.

***Getarian Zer berri* atalean Ointze Silbetik idatzitakoa**

Kofradiak kamioi berria

Erositako kamioaren eginkizun nagusiena itsasontziak antxoatan erabiltzen zituzten sareak deskargatzea izango zen, moilan lehortzen (sikatzen) jarri eta gero lonjetan sartu. Horrela, arrantzaleak ez zituzten sare puska horiek gehiago bizkar gainean karriatu beharko. Gainera, moilan zeuden karro handi gehienak historiara pasako ziren.

SUDOKUA

	6				5			7
8		3					4	
2		7				3	5	
	7	2		4		9		
6	8		5					
		4		3		8	2	
		6			9	2		
	2		6					4
		8			7		3	6

Soluzioak apirileko alean jarriko ditugu.

ASMAKIZUNA

- Zein da bost bokalak dituen animalia?

EROGLIFIKOA

- Nork agindu du? -->



GETARIAKO **HITZAK**

Hitzak **Maritxu Ezenarro**k esandakoak dira

KABAÑARRU edo TRABAÑARRUA:

Bi modu horietara esaten da Getarian. Hiztegietan tragana-rru (eta tragarroi) izenez agerida. Haize-zurrunbiloa da, hodei-zutabe gisa azaltzen dena eta behealdean itsasotik jasotako ur-tantak edo lurretik jasotako hauts, harea eta zaborra izan ohi dituena.

wikipedia.org

Getarian eta inguruetan esaten diren hitzen txokoa da hau. Animatu eta bidali *artzape@topagunea.com*-era ezagutzen dituzun hitzak.

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
Mobila: 652 775 061
E-posta: euranga@getaia.com

azkuelek ELEKTRIZITATEA
K21 KALITATEA
- DEKORAZIOA
- ILUMINAZIOA
- ERA GUZTIETAKO INSTALAZIO LANAK
Tailerra/Denda: Araba, 41 (MAXI) 20800 ZARAUTZ
Tel./Fax: 943.13.04.33 - 943.13.33.08
Mobila: 619.52.35.39 azkuelek@euskalnet.net

APIRILAK 1 asteazkena

11:30ean:
➾JOLASAK
Lekua: Frontoian.
Antolatzailea:
Urritza Aisialdi Taldea.

APIRILAK 7 asteartea

21:30ean:
➾KORTZERTUAK GAZTETXEAN
Good Throb (Londres).
Arrotzak (Donostialdea).

APIRILAK 12 igandea

17:00etan:
➾ ZINE EMANALDIA
Lekua: Gure Txeru aretoan.
Antolatzailea:
Guraso Elkartea.

APIRILAK 18 larunbata

22:30ean:
➾KONTZERTUAK HARRALDEN
Fajardo (Kanariar irlak).
Jox (Bilbo).

APIRILAK 19 igandea

➾ MENDI IRTEERA
Irteera zehazteko dago.
17:00etan:
➾ ZINE EMANALDIA
Lekua: Gure Txeru aretoan.
Antolatzailea:
Guraso Elkartea.

APIRILAK 22 asteazkena

19:00etan:
➾ "ESTADOS UNIDOS A LA CONQUISTA DEL ESTE", DOKUMENTALAREN EMANALDIA.

Urtea: 2005.
Herrialdea: Frantzia.
Zuzendaria: Manon Loizeau.
Iraupena:
54 minutu.
Produktoreak: CANAL+ /Lundi Investigation.
Lekua: Alondegia.
Antolatzailea:
Elan-Euskadi.

APIRILAK 25-26-28

➾ SAN PRUDENTZIOKO JAIAK
* Egitaraua: Ale honetako Klik batean atalean duzue ikusgai.

APIRILAK 30 osteguna

18:30ean:
KATUKALE IRAKURLE TALDEAREN SAIOA
Andu Lertxundi-ren "Otto Pette" liburua landuko dute.
Lekua: Udal Liburutegia.

KIROLA

"FLOREN MEMORIALA"
V. FUTBITO TXAPELKETA.
Antolatzailea:
Gure Txeru Elkartea.

"SALBATORE DEUNA XVIII. PILOTA TXAPELKETA" federatuentzat (kadeteak, jubenilak eta 22 urte azpikoak).
Izen-ematea:
Apirilaren erdira arte.
Txapelketaren hasiera:
Maiatza.
Antolatzailea:
Gure Txeru Elkartea.

GAGLO GAZTELEKUA

Apirileko programazioa:

Pazkoa astean goiz eta arratsaldez

Apirilak 7:
Frontenis txapelketa / Sukaldaritza.
Apirilak 8:
Kin Ball / Topagunea.
Apirilak 9:
BILBORA IRTEERA.
Apirilak 10:
3x3 Saskibalio txapelketa.
Apirilak 17: Topagunea.
Apirilak 18: Mus txapelketa.
Apirilak 19: Eskulanak.
Apirilak 24: Topagunea.
ApirilaK 25: Eskulanak.
Apirilak 26: Zinema.

BALENCIAGA CBM MUSEOA

ERAKUSKETAK:
* Balenciagaren Artea eta Joskin baten maleta aldi baterako erakusketen AZKEN EGUNAK.
➾ **Cristóbal Balenciaga. Legatu denboragabea. Bilduma III**
Erakusketa honek Cristóbal Balenciagaren obraren ezaugarri nagusiak agerrarazi nahi ditu, baita modaren eta diseinuaren historiari egindako ekarpen erabakigarria ere.
➾ **Joskin baten maleta. ENTREDOS 3.0**
2014.12.13 - 2015.04.12
Argazkiak, ebakinak, patroiak. EISA Barcelonan jostun lanetan aritutako Pilar Ayerzarena izandako maletaren edukiak eman zien bidea Fiona Capdevila eta Rosa Solano artista katalanei josketari eskainitako bizialdi bateko puskak bildu eta interpretatzeko.
➾ **Balenciagaren Artea. Museo del Traje-ko bilduma**
2014.04.11 - 2015.04.05
Cristóbal Balenciagaren lanean erabakigarriak izandako eragin artistiko eta estetiko nagusiak azaldu nahi ditu erakusketak, eta ibilbidean zehar, Zurbarán, Velázquez, Goya, Sorolla, Zuloaga, Picasso eta Juan Gris artistek Balenciagaren sorkuntzetan izandako eragina nabarmentzen da.
JARDUERAK:
Aste Santuko PROGRAMAZIO BEREZIA
Apirilaren 2tik 12ra egunero irekita 10.00etatik 19.00etara.
➾ **Ondarea bertatik bertara Getariako seme kutunen legatua: Balenciaga eta Elkano**
Cristóbal Balenciaga Museoak eta Getariako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako Ondarea bertatik bertara ekimenaren barruan antolatutako jarduera.
Data: Martxoaren 28a. (gaztelania) eta martxoaren 29a (euskara).
Ordua: 11:00. Bisita Cristóbal Balenciaga Museoan hasiko da eta bi orduko iraupena izango du.
Prezioa: Doan.
Plaza mugatuak. Izena ematea beharrezkoa da.

➾ **Joskin baten maleta erakusketa amaierako aparteko jarduerak**
Bisita gidatuak sortzaileekin. Bisitariek erakusketa Fiona Capdevila eta Rosa Solano artistek lagunduta ezagutzeko aukera izango dute. Bisitak apirilaren 11an egingo dira, 12.00tan eta 17.30tan.
Sortzaileen lanaldia. Egile katalanek erakusgai dagoen obra batean esku hartu eta bukatu egingo dute. Ekintza apirilaren 12an burutuko da museoaren irekiera ordutegian erakusketa aretoan bertan.
➾ **Dantza Museoan**
Dantzaz Konpainiaren sorkuntza erresidentzien aurkezpena Museoan gauzatutako sortze laborategietan, museoaren bilduma eta publikoaren arteko bitartekotza prozesuak aztertu dituzte. Dantzariek laborategi horien emaitzak aurkeztuko dituzte, koreografia eran, apirilaren 2an eta 3an, arratsaldeko 18.00tan hasita, publikoari irekita egingo diren saioetan.
➾ **Aste Santua Museoan Umeentzako eta familientzako bisita tailerrak - Utz ezazu zure zigilua!**
Parte-hartzaileak: 6 eta 12 urte bitarteko umeak eta familiak.
Datak: Apirilaren 4a (gaztelania), apirilaren 5a (euskara) eta apirilaren 6a (gaztelania).
Ordutegia: 11:00-13:00.
Prezioa: 5€ umeek eta 7€ helduek.
➾ **Helduentzako tailerren programa**
Puntu tailerra
Jarduera teoriko-praktikoa, orratzekin puntua egiteko interesa dutenentzat.
Hasierako maila:
Data: Apirilaren 12a.
Ordutegia: 10:00-14:00.
Maila ertaina:
Data: Apirilaren 26a.
Ordutegia: 10:00-14:00.

Informazio gehiago eta izen-emateak:
Tel. 943 00 88 40
@. didaktika@cristobal balenciagamuseoa.com

Txomin
Urkiri
KAIA-KAIPE
JATETXEA

OSAGAIAK

16 txerri masail
2 baratxuri buru azalarekin
Porru txiki bat (100 gr.)
Tipula txiki bat (225 gr.)
2 dl. oliba olioa
3 litro salda

Txerri iberikoaren masailak gisatuta

EGITEKO ERA

Txerri masailak koipe eta nerbioetatik ondo garbitu. Ondoren, oliba oliotan doratu kolore polita hartu arte. Behin hau eginda, plater batean utzi txerri masailak. Beste aldetik, barazkiak eta baratxuri osoak hartu eta lehen ateratako koipe horretan gozatu. Jarraian, masailak barazki horiekin ontzi batean sartu eta salda isuri osagai denak estali arte. Poliki-poliki egosten utzi, haragia samurra geratu arte. 2 ordu gutxi gorabehera.

Masailak bandeja batean utzi eta egosketaren zukua iragazi. Ondoren, zuku hau su erdian murrizten utziko da, hasierako bolumen osoaren laurden bat geratu arte. Hau eginda, masailak sartuko ditugu eta su mantsoan glaseatzen joango gara ardura handiarekin.

Gomendagarria da saltsa ez oso fuertea izatea, hau gertatu ezkero, ur pixka bat gaineratzea da egokiena. ON EGIN!

INTERESGARRIAK

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udal bulegoa	943 896 024
Faxa	943 140 190
e-mail:	udala@getaria.org
Kiroldegia	943 140 432
Kirol-portua	943 580 959
Taxiak	
Javier	607 720 242
Carlos	607 403 498
Udaltzaingoa	943 896 146
Liburutegia	943 896 147
Anbulatorioa	943 140 653
Botika	943 140 441
Herri Eskola	943 140 729
SOSdeiak	112
Kofradia	943 140 200

Zaintza

FULDAIN FARMAZIA

Apirilaren 7tik 13ra.

egunak

ILARGIAK

Apirilak 4 Ilbetea
Apirilak 14 Igora
Apirilak 18 Ilberria
Apirilak 26 Ilbehera

MAISOR
Kantauriko esperientzia
OBRADOREA eta DENDA
Tel. +34 943 140 993
www.maisor.com
GETARIA
ANTXOA | ANTXOA OZPINETAN | HEGALUZEA | BERDELA | MENTREZKA | SARDINTXOAK

BABEXA
Getariako dendari elkartea

OINARRIAK

XIV LiTerAtuRA LeHiaKeta

2015

1.Parte-hartzaileak
Literatur Lehiaketa hau getariarrei zuzenduta dago. Bakoitzak nahi adina idazlan aurkez ditzake, betiere adinaren arabera dagokion mailan. Lanak banaka egingo dira.

2.Modalitateak eta mailak
Bi modalitate izango dira maila bakoitzean:
IPUINA eta BERTSOA/OLERKIA.

1. LH-ko 1. mailako haurrak
2. LH-ko 2. mailako haurrak
3. LH-ko 3. mailako haurrak
4. LH-ko 4. mailako haurrak
5. LH-ko 5. mailako haurrak
6. LH-ko 6. mailako haurrak
7. 12-14 urte arteko gaztetxoak
8. 14-16 urte arteko gazteak
9. 16 urtetik aurrerakoak

3.Gaia eta luzera
Gaia librea da. Idazlanek literatur lehiaketetan saritu gabeak eta argitara gabeak izan behar dute. Neurriari dagokionez, hona hemen mailaz maila eta modalitatez modalitate gutxieneko neurriak (A4 neurriaren arabera):

	Ipuina (Orrialdetan)	Olerki/Bertsoa (Lerrotan edo bertsotan)
1. LH-ko 1. mailako haurrak	1 or.	8 lerro edo bertso 1
2. LH-ko 2. mailako haurrak	1 or.	8 lerro edo bertso 1
3. LH-ko 3. mailako haurrak	1 or.	8 lerro edo bertso 1
4. LH-ko 4. mailako haurrak	1 or.	8 lerro edo bertso 1
5. LH-ko 5. mailako haurrak	2 or.	10 lerro edo bertso 1
6. LH-ko 6. mailako haurrak	2 or.	10 lerro edo bertso 1
7. 12-14 arteko gaztetxoak	2-5 or.	12 lerro edo 2 bertso
8. 14-16 arteko gazteak	3-6 or.	20 lerro edo 3 bertso
9. 16 urtetik aurrerakoak	4-10 or.	35 lerro edo 5 bertso

4.Lanak nola aurkeztu
Lanak ordenagailuz idatzita aurkeztu behar dira (LH1 eta LH2ko haurrek eskuz idatzita aurkez ditzakete) eta ipuinen kasuan A4 orrietan, lerroartean tarte bikoitza utzia.

Idazlanarekin batera kartazal itxi bat aurkeztu behar da. Barruan egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia adieraziko dira. Kartazalaren kanpoaldean ipuin edo olerki/bertsoaren izenburua idatziko da.

5.Lanak non aurkeztu eta aurkezteko epea
Idazlanak Getariako Udaleko bulegoetan edo Uda lLiburutegian aurkeztu behar dira. Idazlanak aurkezteko epea 2015eko apirilaren 14an, 19:00etan.

6.Epaimahaia
Epaimahaia osatuko dute Getariako Udaleko Euskara Batzordeko buruak, eta Iturzaeta Herri Eskola, Artzape herri-aldizkariko ordezkari bat eta herriko idazle bat... Idazkari lanak Udaleko teknikariak egingo ditu.

7.Erabakia
Epaimahaiak erabakia jakitera eman ondoren, sariak apirilaren 24an banatuko dira, 18:30ean.
Epaimahaiak sariak eman gabe utzi ditzake, aurkeztutako lanek behar besteko mailarik ez dutela irizten badio.

8.Sariak
Maila eta modalitate bakoitzeko sari bakarra emango da. Egile batek ezingo ditu bi sari jaso. Hona hemen sariak:

	Sariak	Ipuina	Olerki/Bertsoa
1.	LH-ko 1-6 maileta ko haurrak	saria	saria
2.	12-14 urte arteko gaztetxoak	saria	saria
3.	14-16 urte arteko gazteak	saria	saria
4.	16 urtetik aurrerakoak	150 euro	150 euro

9. Lanen jabetza eta argitalpena
Saritutako lanak Getariako Udalaren esku geldituko dira, eta Udalarena izango da lan horiek erakutsi eta argitaratzeko eskubidea. Egileek ez dute jabetza eskubiderik jasoko.

10. Idazlanak itzultzea
Saririk jasotzen ez duten idazlanak Getariako udaletxean eskuratu ahal izango dira, sari banaketa egin eta 30 eguneko epean. Epe horretan jaso gabeko idazlanak Udalaren esku geldituko dira.

Literatur Lehiaketa honetan parte hartzeak lehiaketa arautzen duten oinarriak onartzea dakar.

GETARIAKO UDALA